

ANTONI SEGURA

HISTORIA KATEDRADUN ETA 'ISLAMETIK HARATAGO' LIBURUAREN EGILEA

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

«Ekialde Hurbileko egoerak oso ongi erakusten du NBERen erresoluzioak ezartzeko erabiltzen den neurri ezberdina»

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

«Ez nuke hango egoera atentatuarekin zuzenki lotuko, batez ere Bin Ladenen sareak deiturikoen egiletza baieztatuz gero»



CRISTINA CALDERER / AVUI

«Ezin dira giza eskubideak bultzatu eta erregimen totalitarioekin bat egin»

Ainara Mendiola | DONOSTIA

Islametik haratago liburuaren egile, Historia Garaikidean katedradun eta Bartzelonako Unibertsitateko Nazioarteko Ikasketa Historikoen Zentroko errektoreordea da Antoni Segura Mas.

■ **Afganistango buruzagi erlijiosoek bilera egin dute Bin Laden estraditatzeko onartuko duten eta EEBBen balizko eraso baten aurrean hartuko luketen jarrera erabakitzeke. Zer ebartziko dute?**

Oso zaila iruditzen zait estradizioa onartzea ez badago parte hartu duen froga sendorik. Hori frogatzea oso zaila izango da epe laburrean. Bestetik, logikoa da Afganistanen aurkako eraso indiskriminatua baldin badago buruzagiek gerrarako deia egitea. Beste kontu bat da munduko herri boteretsuenetako baten eta txiroenetako baten arteko gatazkak errealitate itxurarik izatea.

Dena den, inori ez zaizkio ahazten EEBBen eraso batek eragingo lituzkeen arazo logistikoak, eta eremuan duen aliatu sendoenetakoa den Pakistanen lituzkeen ondorioak.

■ **Pakistango iturri batzuen arabera, EEBBek udarako pentsatuta zeukaten talibane**

nei eta Bin Ladeni erasotzea. Nazioartea bat dator Bin Ladenen erantzukizuna nahikoa frogatuta ez dagoela esatean, eta berak ere ukatu egin du.

Bi aukeraren arteko lehiaren aurrean gaude: batetik berehalako erreakzio neurri batean primarioa baina bestetik ulergarria EEBBetako iritzi publikoaren presioarengatik, eta bestetik Colin Powellek ordezkatzan duena, nazioarteko koalizioa sortzea, Golkoko Gerrakoaren antzera. Koalizio horretan zentzua izango luke denboran gehiago luzatutako ekintza batek, baina herrialde musulman nagusien presentziarekin. Ez da ahaztu behar Libiako erregimenak ere gaitzetsi dituela hilaren 11ko atentatuak. Hori da Powell egiten ari dena, Europaren oniritziarekin. Ekintza ez hain indiskriminatua izango da seguraski.

■ **Sadam Hussein, EEBBen aurkako atentatua txalotu duen buruzagi bakarra, Washingtonen jomugetako bat izango da gerrarik badago?**

Helburu kolateralak izan daite-

ke. Argi dago EEBBek 1991tik zenbait egoera baliatu dituztela ez Husseinen erregimena gogor kolpatzeko baina bai geldiarazteko eraso selektibo bidez, bi zonalde NBERen kontrolpean dituela gogorarazteko.

■ **Ohiko gatazka bat ez zaio inori interesatzen esan duzu. Zein gatazka mota espero daiteke?**

Beno, nik esan dut ez zaiola inori axola armagintza industriari izan ezik. Ezaugarri hauek gatazka bat, ez ohikoa ezta ezohikoa ere, ez zaio inori interesatzen. Mundu osorako eze-gonkortasun faktore bat da. Egia da gatazka saihesteko gauza asko zuzendu beharko lirakeela nazioarteko harremanetan, besteak beste sistema askoz ere bidezkoago eta solidarioagoa ezartzea herrialde behartsuenekin eta Nazio Batuek erresoluzioak betearazterakoan modu ezberdinean ez jokatzea herrialde batzuekin eta besteekin. Ezin dugu giza eskubideen eta askatasunen eredu bat bultzatu herrialde jakin batzuetako politikek bat egiten dutenean erregimen us-telekin edo totalitarioekin beren interesen arabera. Ez deza-

gun ahaztu Sadam Hussein ez dela Mendebaldeak sortutako figura bat, baina bai neurri batean Mendebaldeak armatutako erregimen bat 1980ko hamarkadan Irani aurre egiteko. Afganistan eta Pakistanen gertatzen ari denaren antzekoa da, non Gerra Hotza zegoen bitartean ez zen zalantzarik egin lehenengo mujahidinak eta gero talibanak laguntzeko Armada Gorriaren kontra.

■ **EEBBak zuzen daude atentatuaren atzean talde musulmanak daudela pentsatzean?**

Komunikabideak zabaltzen ari diren arrastoek, zeintzuk kontrastatu ahal izan arte erreserbekin hartu beharko diren, adierazten dute gutxienez zuzeneko ekintzan zerikusia dutela. Ez dena baztertu behar da beste trama batzuk, edo zenbait estatutako zerbitzu sekretuen zerikusia.


■ **Ekialde Hurbileko egoerak zerikusia izan duela uste duzu?**

Ez nuke kausa-ondorio lotura egin nahiko, batez ere *Bin Ladenen sareak* deitzen hasi direnen egiletza baieztatzen bada. Bin Ladenentzat askoz ere garrantzitsuagoa da Ameriketako tropen presentzia berak islamaren lur sakratutzat jotzen duen Penintsula Arabiarrean. Ekialde Hurbileko egoerak oso ongi erakusten du NBERen erresoluzioak indarrean jartzeko orduan erabiltzen den neurri ezberdina. Zenbait herrialderi Segurtasun Kontseiluaren neurri guztiak betearazteko NBERen indar osoa erabiltzen den artean, zenbait herrialderi bete-araztea askoz zailagoa dirudi, kasu honetan Israeli. Frustrazio hazi nabarmena dago han; palestinarrek bi aldiz egin diote uko estatu palestinar bat sortzeari, eta krisi egoera horrek irtenbidea irailaren 11koaren moduko ekintza basatiekin eman nahi dioten giro musulman batzuetan eragin dezake.

■ **Zein ondorio izango ditu nazioarteko politikan hilaren 11ko atentatuak EEBBen ahultasuna erakutsi ostean?**

Niretzako ondorio onena izango litzateke gogoeta sakona eragitea nazioarteko harreman sistema bidezkoago eta solidarioago bat sortzeari buruz. Baina, gerta daiteke sistema zurrinago bat sortzea, xenofobia eragitea migrazio fenomenoaren aurka, eta indar neurriak nagusitzea gogoetaren aurrean.

LABURAREN



FRANCK FIFE / AP

Abdelaziz Buteflika.

ALJERIA

Aljerrek ez du «terrorismoaren» aurkako koalizioan parte hartuko

EEBBek «terrorismoaren» aurka egiteko martxan jarri nahi duten koalizioan parte hartuko ez zuela esan zuen Aljeriako Gobernuak atzo. «Terrorismoaren» aurkako ekintzak Nazio Batuen bidez onartzea eskatu du Abdelaziz Buteflika presidenteari.

G-8

NBERen «terrorismoari buruzko hitzarmenak» aplikatzeko eskatu dute

Nazio Batuen Erakundearen «terrorismoari buruzko hitzarmenak» berehala aplikatzeko eskatu zuen atzo G-8 munduko zazpi herrialde aurreratuenen eta Errusiaren taldeak. Hitzarmenak ez dira oraindik berretsi.

ESTATU BATUAK

Hiru susmagarri arabiar atxilotu ditu FBIk

Joan den asteko atentatuarekin ustez lotura izan zuten hiru arabiar atxilotu zituzten FBIko agenteek atzo EEBBetako Detroit hirian. Agiri faltsuak izatea egotzi die FBIk atxilotuei.

ALEMANIA

Gobernuak 1.500 milioi euro bideratuko ditu segurtasuna hobetzera

Segurtasuna areagotzeko 1.500 milioi euro erabiltzea onartu zuen Alemaniako Gobernuak atzo. Armadaren erreakzio gaitasuna hobetu eta zerbitzu sekretuak indartu nahi ditu Berlinek.

IRAK

Attarekin harremanik ez zuela esan du Bagdadek

EEBBetako atentatuetan erabili zen airekoetako bat ustez bahitu zuen Mohamed Attarekin loturarik ez zuela esan zuen Irakek atzo. Bagdadeko zerbitzu sekretuak Attarekin kontaktuan izan zirela esan dute EEBBek.